

Hazkundearen mugak I


Hazkundearen mugak

Hauxe anitzetan erran dute, baina ez da deus ere gertatu...



Agian hazkundearen mugen istorioa anitzetan kontatu dizute eta pentsatzen duzu ipuintxo bat dela... baina erakusketa honek ez ditu ipuinak mintzagai, oso gauza errealak baizik.

Ipuinak dira, hain zuzen ere, egunero botatzen dizkiguten zenbait argudio, lotan segi dezagun konbentzitu nahi gaituztenak:



Badarama azokara esne-saltzaileak marmita buruan, halako zalutasunez, halako soitlasunez, halako xalotasunez, eta bidean topatu dituen guztiei erran baitiei:

Hau bozkarioa, zorionekoa ni! Negozioa bainuen eta irabazi ederrak izan bainituen, eta orain banao kapitalaren merkatuetara baten trukean mila erdiestera.

Milioi horiekin landa lurak erosiko ditut eta nire lagun zinegotziari eskatuko diot berriz kalifika ditzan, eta maillegua eskatuko dut apartamentuak eraikitzeko.

Lortzen dudun diruarekin golf zelaia eraikiko dut, eta txalet polit batzuk, eta txalet horiek salduz aireportu bat eraikiko dut eta gero kasino bat...



Baziren behin gizon-emakume batzuk oilo bat opari jaso zutenak; oilo hark uztza ederreko arrautzak erruten zituen, egurra, arrantza, aire garbia eta edateko ura. Egun batean pentsatu zuten: arrautza eder hauek ematen dizkigun oiloa gehiago esplotatzen badugu are altxor handiagoak lortuko ditugu. Beraz, probatuko dugula jasoak agortzen, geneak manipulatzeko, urak kutsatzen...

Baina ipuin asko kontatu badizkizute, litekeena da nola bukatzen diren jakitea...

Gure ez-ipuinaren pertsonaiak aurkezten dizkizuegu

Herritarrak



Lotia



Pentsaera bakarra



Hazkundearen mugak 2



Benetako iraunkortasuna

Garapen iraunkorra?
Eta ez da gauza bera hazkunde iraunkorra?
Nik berdintsu aditzen ditut!



1970eko urteetan, zientzialari talde batek lehenbizikoz ikertu zituen Lurreko arazoak ordenagailuak erabiliz.

Ondorio garbiak izan zituzten: ez bagenuen eragozteko zer edo zer egiten, XXI. mendean natur baliabideak agortuko ziren eta zibilizazioak behea joko zuen. Hori eragozteko, populazioaren eta ekonomiaren zero hazkundea lortu beharko litzateke....



Aurreikuspenak berdean eta datu historikoak morean
Iturria: "A comparison of the Limits to Growth with thirty years of reality", Graham Turner, CSIRO Working Papers, 2009.

Figuretan ikus daitezke aurreikuspen batzuk eta azken 40 urteetako errealitatearekin duten antzekotasuna.



Zer gertatu zen azterketa haiekin?

Batzuek pentsa dezaketaren kontrara, hazkundearen mugei buruzko azterketek ez zuten hutsik egin. Azken 40 urteetako datuek baieztatu dute balio dutela. Eta azterketok oinarri hartuta asmatu zen iraunkortasun kontzeptua eta aztertu zen gizakiak gure planetan duen eragina. Duela bi hamarkadatik, aski ezaguna da gainditu egin dugula gizakien biziari eusteko Lurrak duen gaitasuna.



Zer da iraunkortasuna?



Ez dut ulertzen zergatik gizakiok ez dugun hau ulertzen: sartzen duguna baino gehiago ateratzen badugu, egunen batean bukatuko zaigu, ez?



Iraunkortasuna da baliabideak eta zerbitzuak emateko ekosistemek duten gaitasuna bideragarria izatea. Beraz, ez da zaila ulertzea leheneratzen dena baino gehiago ustiatzen badugu azkenean baliabide iturririk gabe geldituko garela.



La sostenibilidad es incompatible con el crecimiento

Begibistakoa da kontsumoa etengabe hazten baldin bada iraunkortasuna ezinezkoa dela. "Soilik" %1 haztea oso gutxi irudituko zaigu, baina denbora luzean eusten bazaio azkenean oso kantitate handiak emanen ditu. Modu horretan hazten delarik, erraten da hazkunde esponentziala dugula. Igoerak txikiak dira hasieran, baina noizbehinka bikoizten dira eta oso balio handiak lortzen dituzte.

Hazkundearen mugak 3

Kolapsoak: ez gara bakarrik bizi, ekosistema baten parte gara

Kolapsoak?
Hemen ditugu zortizurrekoak
berri, mudduaren akaberaz
hizketan, Mendebaldeko
zibilizazio historiko
diridrat suena dugu, azkarrena,
aurreratubena...



Konpondu beharreko arazoa ez da berria: planetak gure jardueri eusteko duen gaitasuna gainditu dugu.
Historian, hainbat zibilizazioak arazo bera izan dute.
Batzuek behea jo zuten, bertze batzuek ez.



Pazko uhartea

Pazko uharteko jendeak bertako oihana suntsitu zuen, desagertzea eraman zituen bertako landare eta animaliak eta bere gizarteak kaosaren eta hondamendiaren zirimolan sartu zuen. Mende bat baino gutxiagoan populazioa 7.000 biztanletik 2.000ra jaitsi zen.

Oihana galduta, lurrak higatu ziren, hegaztiak desagertu ziren eta arrantza egiteko txalupak egiteko aukera galdu zuten. Are gehiago, behea joko zutela nabaria zenean ere, modu egokian erreakzionatu ordez, estatua erraldoiak eraikitzen segitu zuten eta, horrela, are ballabide gehiago xahutu zituzten.



Japonia XVII. mendean

XVII. mendeko japoniarrek egur eskasia eta higadura arazo handiak izan zituzten bere oihanen gehiegizko mozketaz zela eta. Garaiz gelditzen jakin izan zuten, oihanak zorrozki kudeatzen hasi ziren, ez zuten populazioa handitu eta kolapsoa saihestu zuten.



Emakumeek, biziraupeneko baldintza materialetatik gertu izan baitira, jasangarritasuneko bidean egokituago egoteko lanak eta gaitasunak garatu dituzte.

Naturako lanekin gertatzen den gisa berean, emakumeek egin izan dituzten lanak ikusezinak dira eredu ekonomiko kapitalistan, ez baitira dirutan zenbatzen.

Yayo Herrero, Ecologistas en Acción

Gure zibilizazioa teknologia sofistikatuan oinarritua dagoen arren, oraindik ere lur emankorren dependentzia dugu, eta arrantza-tokiena, eta edateko urarena, eta ekosistemek ematen dizkiguten bertze zerbitzu anitzena ere bai.
Zerbitzu horietako asko ezin dituzte teknologiek ordezkatu, edo bere kostua ikaragarri handia litzateke

Nola erreakziona dezake zibilizazio batek kolapso baten aitzinean?

Hazkundearen mugena
dentistarenera joatea bezalakoa da.
Alterkeriatan bazabiltza,
azkenean ez dizute hagin bat
kenduko, baizik eta bi...
Hobe da ausart jokatu
eta lehenbaiten joatea!

Egonkortzea. Mugetara ailegatu baino lehen erreakzionatzen denean lortzen da. 1980ko urteetan har genezakeen bidea da.

Gailurraren gainekoa eta oszilazioak.
Mugak gainditzen direnean beharrezkoa da erorikoak jasatea egoera egonkor berri batera ailegatu aurretik. Erreakzionatzen jakinez gero, oraindik badago aukera bide horretan eboluzionatzeko.

Kolapsoa.
Ez bada garaiz erreakzionatzen, edo okerreko bidean egiten bada, gizakien eta ekosistemen hondamendia heldu da.

Hazkundearen mugak 4

Zer ari da petrolioarekin gertatzen?


40 urterako petrolioak gelditzen da. 41 urte barru hasiko naiz kezkatzen.



Hobi batetik ustia daitekeen petrolioaren erdia atera delarik, putzu horren gainbehera hasten da eta erauzketa gero eta mantsoagoa eta garestiagoa izaten da. Fenomeno horri petrolioaren zenita edo gailurra deritzo eta erran nahi du, baliabideak gelditzen diren arren, ezin dela nahi den erritmoan erauzi eta urtetik urtera ekoizpena gero eta txikiagoa dela.


40 urterako petrolioak gelditzen da?

Gaurko kontsumo mailari eutsita 40 urterako petrolioak gelditzen dela erraten duten arren, horrek ez du erran nahi erauzketa handitzen segi dezakegula eta, halako batean, putzuak egun batetik bertara hutsik geldituko direla. Meatotiek gutxika-gutxika egingen dute behera eta, hamarkada honetatik aurrera, ia aditu guztiek diote petrolio ekoizpena gero eta urriagoa izanen dela, gero eta garestiagoa, eta gero eta kalitate txikiagokoa.



Iturria: Petrolio eta Gas Gailurraren Ikerketarako Elkarte (ASPO), 2008.

Badago petrolio asko aurkitzeko?



Iturria: British Petroleum (<http://www.bp.com/statisticalreview>)



Hobi handiak 1960 baino lehen aurkitu zituzten eta badira hamarkada batzuk gehiago dela kontsumitzen dugun petrolioak aurkitzen dutena baino.

Hedabideetan oihartzun handia izaten duten arren, aurkikuntza berriak oso apalak izan ohi dira.

Kasu!
Badira 5 urte petrolio ekoizpena susmagarriki geldirik dagoela (prezioak gora egin ala ez).



Hazkundearen mugak 5

Azken tantak zukutzen; merezi du?

Petrolio eta gas eskasiak konpainiak eraman ditu erauzten zailak diren baliabideak bilatzera. Baliabide horien erauzketa teknikak ingurumenean ondorio birrintzaileak sortzen dituzte.

Kanadako harea asfaltikoak



Lehen

Ustezko petrolio erreserbak Kanadako harea asfaltikoetan: 170.000 milioi upel = 5,6 urteko munduko petrolio kontsumoa.



Gero

Lur suntsitua eta kutsatua (hainbat mendetarako) 140.000 metro koadroan (Euskal Herria halako zazpi).


Aztarnategi horietatik petrolio ateratzeko nahiaezkoa da oihan boreala suntsitzea, ur eta gas natural kopuru handiak erabiltzea, eta ur kutsatuko urmael handiak sortzea.

Lurra hainbat mendetarako suntsitzen da eta minbizi eta gaixotasun kasuak nabarmen ugartzen dira.

Baita zure etxean ere!



Fracking-a edo haustura hidraulikoa kalitate eskaseko gasa (eskistokoa) erauzteko teknika bat da, oso erasokorra bera. Fracking-aren bidez, substantzia kimiko kopuru handiak sartzen dituzte lurrian, haitzen artean dagoen gasa disolbatzeko. Horrela, lurrak, airea eta akuiferoak ikaragarri kutsatzen dituzte. Estatu Batuetan 20 urte daramatzate fracking-a erabiltzen eta salaketa anitz jaso dute pertsonen osasunari eragindako kalteengatik.



Eremu hauetan guztietan ari dira ikerketak egiten eskistoko gasa erauzi ahal izateko, baina oraindik ez dira ustiatzen hasi.

- Sajako natur erreserba (Kantabria)
- Alto Campoo (Kantabria)
- Cañones del Ebroko natur erreserba (Burgos)
- Ebroko eta Dueroko goi-ibarrak
- Arabako eremu idorak eta Obarenes mendiak (Burgos)
- Arandiko mendilerroa (Burgos, Soria, Errioxa)
- Esguevako ibarra (Valladolid)



Gelditzeko garaiz gabiltza!

Petrolio lur azpian utz daiteke?

Ekuadorren, nahiz eta gobernuak azkenean ustiapena baimendu zuen, herri borroka etengabeak eta Yasuni natur erreserbaren defentsak eztabaida pizturik mantentzen dute (proposamen berritzaileak eginez), biodibertsitate handiko Amazonasko eremu horretan petrolio baliabideak ustia ez ditzaten.

Petrolio erauzten duten lurraldeetan bizimoduak, kultura eta osasuna kaltetzen dituzte, eta lorturiko irabaziek ez ohi dute eraginik izaten erauzte eremuetan.





Hazkundearen mugak 6


Nuklearra, gasa, ikatza... Konponbidea ote?

Gas naturalak eta ikatzak petrolioaren antzeko patroiei segituko diete zenbait hamarkada geroago. Uranioa ere ez dago bere zenitetik urruti. Oraindik ere baditugu urte batzuk erregai horiek guztiak ordezkatzeko, baina ezin gara deskuidatu, trantsizioak denbora behar baitu eta gure energiaren %80 baino gehiago baliabide ez berriztagarrietatik baitator..

Ez da deus gertatzen. Petroliorik gabe geldituz gero, lasai, energia nuklearra infinitoa da. Gainera, uranioa bukatzen bazagu, itzeskora uretatik aterako dugu edo Martara jositako girara bera biltu. Egin da, bixi, itzesotik ateratzeko edo Martara jositako energia gehiago behar dut, baina zer axola dio, pentsatuko dut nola egin...



Iturria: Grupo de Energía y Dinámica de Sistemas de la Universidad de Valladolid <http://www.eis.uva.es/energiasostenible>



Iturria: Energiaren Nazioarteko Agentzia, 2010. Berriztagarrien artean daude biomasa, egurra, hondakinak eta bertzte.

Energia nuklearrak merezi du?

Energia nuklearra etorkizuneko alternatibatzat jotzen digute batzuetan, baina datuek frogatzen dute arriskutsua eta kutsakorra dela, eta erregai fosilak bezalaxe, egunen batean agortuko dela.

Fisio nuklearra

Bakarrik elektrizitatea ekoizten du.

Milaka eta milaka urte irausten duten hondakin erradioaktiboak (arriskutsua eta garestia).

Uranioa berriz erabiltzen saiatu dira (4. belaunaldia), baina duela 30 urte eginiko esperimentuek ez zuten arrakasta handirik izan.

Energia netoaren unitate bakoitzeko, energia nuklearraren eta energia eolikoaren eraikuntza-operazio prezioa antzekoa da, eta gainera nuklearraren itzulkin energetikoa txikiagoa da.

Malformazioak, leuzemiak eta gaixotasun kronikoak gehiago dira Txernobylgo inguruetan. Eta kasuak ugaritzen ari dira, gubiagotu beharrean. Fukusimak zer sortuko duen ikusteko dago.



Fusio nuklearra


Bakarrik elektrizitatea ekoiztiko luke.

Bakarrik laborategietan lortu dute eta arazoak dituzte industriaren tamainara handitzeko.

Diru anitz inbertitu dute eta ez dute emaitza praktikorik lortu.

Bere sustatzaileek diote itzulkin energetiko baxuak izanen dituela (eolikoaren erdia edo).

Inoiz errentagarria izaten bada, ez da garaiz ailegatu (petrolioaren gailurra gainean baitugu); lehenbiziko zentral komertziala 2035-40 urteetarako espero dute.



Iturria: The Energy Watch Group



Hazkundearen mugak 7

Berriztagarriak etorkizuna dira... baina mugatuak dira

Es
da ezan gertatzen.
Energia fosilak agortzen
badira, berriztagarriekin
negozioak egin eta
hazkundearekin jarraituko
dugu. Horri kapitalismo
berdea deituko diogu.



Lurraz Eguzkiarengandik forma ezberdinetan adierazten den energia jasotzen du (haizea, biomasa...). Erregai fosilak eta uranioa agortzen direnean gure jardura guztiak energia honetan oinarritu beharko ditugu. Horrek suposatzen du heltzen hasi beharreko erronka teknologiko, sozial eta politiko ikaragarria.

Energiaren munduko egoera gaur egun (*)



%3 *

Energia iturri berriztagarrietatik eratorritako elektrizitatea eta berokuntza.

(*) Gaur egungo energia primarioen kontsumoa ehunekotan (ENA)

Materia begetala
MUGATUA

%10

Biomasatik datorren sutako egur, sukalde eta etxeetako berokuntza.



Erregai nuklearrak
AGORGARRIAK

%6

Nuklearretik eratorritako elektrizitate ez berriztagarria.



Erregai fosilak
AGORGARRIAK

%35

Petroliotik eratorritako garraio, berokuntza eta nekazaritzarako erregai likidoak.

%46

Ikatzeta eta gasetik eratorritako elektrizitatea, berokuntza, ongarri kimikoetarako materialak, pestizidak, industria kimiko eta metalurgikoa.



Kasu "ipuin berriztagarriekin"!

Energia berriztagarriak errentagarriak dira. Hala ere, hazkundearen mugei aurre egin behar diegu eta ezin dugu energia berriztagarrietan bertze "boom" ekonomiko bat oinarritu.

Planetak mugak ditu eta erabilera askoren inguruko gatazka dugu: ibarrak urez bete elektrizitatea lortzeko ala nekazaritza jarduerak utziko ditugu? Oihanak hondatuko ditugu biodieselak lortzeko? Berriztagarriak etorkizuna izanen dira, soilik gure hazkundera moztan badugu.

Energia berriztagarriak: argi-ilunak

Eolikoa	Haizea erabiltzen du elektrizitatea lortzeko; itzulera energetiko ona du; errentagarria da; teknologia aski garatua du; bakarrik elektrizitatea ekoizten du; aldiakakoa eta mugatua da.
Eguzkiko fotovoltaiakoa	Panel fotovoltaiak oinarritzen da; teknologia garatua da, baina garesti samarra da oraindik; itzulera energetiko baxua du; bakarrik elektrizitatea ekoizten du; lur eremu handiak okupatzen ditu; instalatzea erraza da eta produkzio txikitara egokitzen da.
Eguzkiko termoelektrikoa	Eguzki erradiazioa kontzentratzen duten ispiuetan oinarritzen da. Oraindik garestia den teknologia heldugabea da; itzulera energetiko ona du; lur eremu handiak okupatzen ditu; bakarrik elektrizitatea ekoizten du; eolikoa baino jarraiegia da.
Etzeko eguzkiko termikoa	Etzeko ur beroa eta berokuntzarako erabiltzen da. Itzulera energetiko ona du; instalazio erraza; sistema gehigarriak behar ditu; inbertsioa urte gutxitan berreskuratzen da.
Bioerregaiak	Landareetatik eratorritako erregai likidoak. Itzulera energetiko txikia dute; lur eremu ikaragarri handiak okupatzen dituzte; elikagaiekin lehiatzen dira; garraiorako erregai likidoak ekoizten dituzte.
Bioklimatikoa (arkitektura)	Diseinuaren bidez etxebizitzaren berokuntza eta hozketa beharrik murrizten oinarritzen da. Eraikinen diseinutik aplikatzen denean oso eraginkorra da, baina ondoren ezartzen bada garestiegia da. Energia asko aurrezteko aukera ematen du.

Kasu amaigabeko ipuinekin!

Energia suntsitzen ez den arren, erabiltzen den bakoitzean degradatu egiten da eta degradatua dagoen energia ez da baliagarria (edo balio txikiagokoa da). Horregatik, energia iturri amaigabeak ez dira existitzen. (*)



Kalitatezko eguzki
energia



Espaziora igorritako
energia degradatua



(*) Ute tesko energia "libre eta debekatu" lortzeko asmikiazuzen inguruko bideo eta web orriakde saitze daude interneten. Ezinezkoa da frogatzen hainbat konfiantza dituzten ipuinak direla, ez ohi baitute daitezkeen erabilera baina, berriztagarriak berriz, ez lortzeko eta beteko hazkundera lege ekonomiko eta ekologiko erabiltzeko eta petrolioren gisakortasun ordezkatzea.

Hazkundearen mugak 8

Agur “erabili eta bota”-tzeko kulturari

Lurrean dagoen mineral kopurua mugatua da, baina horiek banatu eta birziklatzeko arreta izanen bagenu, bederen, behin eta berriz erabiltzeko aukera legoke. Gaur egun, birziklapenari kasurik egin gabe diseinatzeko da, eta elementuak zabortegetan bukatzen dira. Behin muga baten gainetik sakabanatuak izanda, birziklapena ia ezinezkoa dute energia handia eskatzen duelako.

Zaharkitzea programatuari ez



Gozatzen dugun eta “erabili eta bota”tzeko ereduan bizitzen uzten dugun materialen ugaritasuna, batez ere, petrolioaren energiari zor zaio.



Zentzu askotan, naturaren “teknologiak” gizakienak baino askoz hobeak dira. Ekosistemek elementuen ia %100 birziklatzen dute eta energia muga sinestezinetaraino aprobetxatzen dute.

Biomimesia: ekosistemen lorpenak imitatzen dituzten teknologien eta gizartearen eraikuntza.

Ekosistemen birziklatze tasak: nitrogenoa %99,9; karbonoa %99,7

Ontzien birziklatze tasak Europan: plastikoa %29; kartoia %33; beira %62; altzairua %70



Badu etorkizunik teknologia honek?

Lur arraroak oso bakanak diren elementuak dira. Haiei esker ordenagailu, mugikor, eguzki-panel eta bateria elektrikoaren prestazioak asko hobetu dira.

20 urte baino gutxiago ustiatu eta gero, horietako asko agortzeko seinaleak ematen ari dira, ez baitituzte birziklatzen.

Telefono mugikorrek egiteko mineral garrantzitsuenak Kongoko Errepublika Demokratikotik heldu dira. Horiek erauzteko, mendebaldeko munduak gerra zibil odoltsua finantzatu du, bortz milioi pertsona baino gehiagoren heriotza eragin duena.



Hazkundearen mugak 9

Zer egin gure bizimoduarekin?

Gaur egungo bizimoduak funtsik gabeko kontsumo batera bultzatzen gaitu, baliabide naturalak xahutzen dituen eta antsietate dinamika batean murgiltzen gaituen.

Konpobidea ez da bakarrik teknologiatik etorriko; nahitaezkoa da bizimodua zeharo aldatzea.

Gure ekoizteko, kontsumitzeko eta banatzeko era aldatzen badugu, energia eta baliabide naturalen aurrezteak ikaragarri handia izan daiteke, eta bizi kalitatean ere irabaziko dugu.

Elikagaien munduko banaketa energia xahutzearen adibide bikaina da.



2007ko izozki eta pataten inportazioa eta esportazioa hiru herrialde horien artean (Iturria: J. Piguem)

Hau astakeria, elikagaiak 4.000 km egin dituzte bates bertze nire mahaira ailegatu aitzin.



Pip Bouteille

Gaur egungo nekazaritzako ongarri nitrogenatu eta pestizidak petrolio eta gas naturalarekin ekoizten dira.

CO2 igorpenen %45 nekazaritza eredu industrializatu honi dagozkio.
(Iturria: GRAIN)



Zer egin garraioarekin?

Auto elektrikoak?...

Osoz, energia biltzeko gasolinakoa baino 15 aldiz gutxiagoko ahalmena dauka.

Motozikleta elektrikoek gasolinakoen prezio eta autonomia oso antzekoa dute.

Trenak, bizikletak eta garraio publikoak energetikoki oso aukera eraginkorrak dira.

edo bertze era batera mugitu?



Munduko garraioaren %96 petrolioaren menpe dago.

Aizu! Bizikletan ibiltzea ikaragarria da. Nola ez zait, bada, lehenago bururatu?



Autoak elikatu ala pertsonak elikatu?


Jatorri begetala duten gasolina eta gasolioek (bioerregaiek) eskala handi batean ez dute konponbide baliagarria osatzen.



Gaur egungo autoak bioerregaiekin elikatze beharrezkoa izan liteke munduko lur zatia: landagarria den lur zatia halako bi.



2005ean, bioerregietarako palma olioak Malasiako deforestazioaren %67 eragin zuen.



Paraguaiaren bioerregietarako eta esportatutako pentuak eta soja transgenikoarekin landaturiko lur eremua: %50.


Urtero, 70.000 nekazari beren lurrak uzten dituzte Paraguain sojaren hedatzea dela eta.

Hazkundearen mugak 10

Ekonomiaren hazkundetik...

Ez dago alternatibarik ekonomia ibilazteko etengabe hazi eta kontsumoa sustatu egin behar da. Planetik dena emari behar du guretzat ala ez.

Egungo ekonomia hazkundera oinarrituta dago: korrituak dituen maileguak behartzen du enpresa salmentak areagotu, gero banketxeari dirua itzultzeko, burtsan kotizaten dituzten enpresek irabaziak handitu behar dituzte inbertsoreak erakartzeko, eta abar. Bankuei eta burtsari lotutako ekonomia diseinatuta dago etengabe hazteko espekulazioaren eskutik.



Azken mendeotan hazkunde ekonomikoak natur baliabideen eta energia kontsumoaren hazkundera ekarri du. Zer gertatuko ote da energia kontsumoak goia jotzen duen egunean?

"Bukaerarik gabeko garapen jarraiaeren kontzeptua mamirik gabea da, eraikuntza sozial eta ideologiko bat, mito ezin erakargarriagoa, konbentzitzeko gaitasun handia duena, "sen onaren" parte izatera iritsi dena, baina azken batean gezur handi bat bertzerik ez dena, gutxi batzuek izan ezik".

Ramón Fernández Durán

Egungo ekonomia norbanakoen probetxuan eta hazkundera oinarrituta dago. Guztion onerako ekonomia behar dugu, ordea, naturaren mugak errespetatuko dituen.

Kapitalendako pentsatutako ekonomiatik



Paradisu fiskaletan dabilen multinazional bati erosten badiot, haren zergek ihes egiten diote nire gobernuaren kontrolari eta honek ahalmena galtzen du nire familiaren eskola eta ospitalea ordaintzeko.

Eta nik erosten baditut Hegoan miseriazko soldatekin egindako produktuak... urte gutxian galduko ditut nire lan eskubideak.



pertsonendako pentsatutako ekonomia



Nik erosten badiot tokiko enpresa bati, irabaziak geldituko dira bertan lan egin, kontsumitu eta zergak ordaintzen dituzten pertsonengan, eta horien onurak niregana itzuliko dira.

Eta bidezko merkataritza erosten baldin badut... nazioarteko elkartzasuneko sareak bultzatzen ditut, gero nirekin solidarioak izanen direnak.



Eta bertako elikagai ekologikoak erosten baditut lanpostuak sortzen ditut, ingurumena zaintzen dut, nire osasuna hobetzen dut eta landa eremuari bizitza ematen diot.

Hazkundearen mugak II

...ongi bizitzeko ekonomiara

Gizarte taldeek urteak daramatzate egungo sistemari alternatibak sortzen eta esperientziak ere badira mundu osoan. Alterglobalizazio mugimendua ekimen horien erakusle hoberikoa da.

Ekonomia zein gizarte berri baten aldeko trantsizioa martxan dago, gizarte mugimenduen eskutik. Bat egin!

Ongi bizi

Iparrak inposaturiko garapen eredu baten aurrean, natur baliabideen erabileraren oinarritua dagoena, Hegoamerikan mugimendu berri batzuk sortzen ari dira, ez dutenak proposatzen "bertze inor baino hobeki bizi", baizik eta "ongi bizi" baino ez.

Herri baratzeak eta kontsumo sareak

Hiri eta herri askotan sortzen ari dira hiri baratze komunitarioak eta tokiko nekazari ekologikoen produktuak zuzenean hartzen dituzten kontsumitzaile sareak.

Herriak trantsizioan

Irlandako Kinsale herria adibide hartuta, herri, auzo eta hiri asko petrolioaren nagusitasunari aurre egiteko antolatzen ari dira, tokiko elikadura eta energia sistema propioak bultzatuz.

Jatorrizko herriak

Hegoamerikako gizarte mugimendu askok jatorrizko kulturetan dute oinarria, eta herri horiek naturarekin erlazionatzeko dituzten moduak hartzen dituzte garapen eredu alternatibak eskaintzeko.

Bidezko merkataritza

Lan esplotaziorik gabe egindako arropa, haur linik gabeko nekazariei mesede egiten dieten kafe eta azukrea, garapen komunitarioko proiektuak laguntzen dituzten artisaueko produktuak... Bertezentzako justizia defendatzen zurea ere defendatzen duzu.

Benetako demokrazia – demokrazia globala

Jende asko ulertzen ari da demokrazia berreskuratu behar dugula mende honetako erroken aurre egiteko gai izan nahi badugu.

Munduko Foro Soziala

Globalizazioari alternatiba bat erakitzeko asmoz 2001etik mundu osoko gizarte mugimenduak goi bilerak antolatzen ari dira. Hor sortzen diren ideia asko eskala txikian martxan jartzen ari dira.

Informazio alternatiboko sareak

Askok dira sortzen ari diren egunkari digitalak, enpresa iragarleen menpekotasunetik ihes egiten duen kazetaritza bat eskaintzen salatzeko direnak.

Open source

Jende askok pentsatzen du giza jakintza libre eta doakoa izan beharke litzatekeela, patenterik gabekoa, eta ez erabilia herri batzuek bertze batzuen garapena oztopa dezaten. Horregatik beren ezagutzak guztion eskura jartzen dituzte creative commons, copyleft eta open source hardware lizentziak erabilita.

Banka etikoa eta gizarte monetak

Badira banku batzuk betiko bankatik aldetzen direnak. Banku horiek honako lehentasunak dituzte inbertitzera: egiarria ekonomia, helburu sozialak dituenak, bezeroak enpresaren parte diren kreditu kooperatibak, tokiko monetak, denbora bankuak, interesik gabeko bankuak: Fiare, Coop 57...

Ongi jan, ongi bizi

Pentsatu ohi da nekazaritza kimikoa nahitaezkoa dela gizakiak elikatzeko. Baina gero eta ikerketa eta esperientzia gehiagok erakusten dute agroekologia askoz ere aukera hobea dela.

Ekonekazaritza berehala besarkatzea da modu bakarra gosea bukatzeko eta klima aldaketaren erroken aurre egiteko.

"Nekazaritza industrialak zenbat eta elikagai gehiago ekoizti, orduan eta pobrezia eta gose handiagoa pairatzen dugu"

Gustavo Duch



"Nekazaritza ekologikoak natura imitatzen du, ez prozesu industrialak. Hala ere, Saharaz hegoaldeko Afrikako 20 herrialdetan eginiko 44 proiektutan etekinak %214 handitu ziren, nekazaritza ekologikoaren teknikak erabilita; genetikoki aldatutako ezein laborantzak inoiz lortu duena baino askoz ere gehiago".

Olivier De Schutter, Elikatzeko Eskubideari buruzko Nazio Batuen kontalari berezia

Nekazaritza ekologikoa:

- Ongarri eta pestizida kimikorik ez
- Lur eta ekosistemen zaintza berezia
- Nekazari eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena
- Tokiko ekoizpena
- Patentatu gabeko haziak, barietate tradizionalen aniztasunaren babesa
- Elikagai osasuntsu eta kalitatezkoak

Hazkundearen mugak 12

Zer egin dezaket nik?

Munduak behar dituen aldaketa asko zugar eta zure ohiko ekintzetan hasten dira (zure kontsumo kritiko eta arduratsua, darabilzun garraiobidea, zure elikadura), baina bertze asko ezin dituzu zuk bakarrik egin. Horrek ez du erran nahi ezinezkoak direnik, ekimen politiko kolektiboak behar dituztela baizik.



Aldaketa globalaren partaide izateko zure herrian diren gizarte talderen batean parte har dezakezu (edo zeurea sortu). Hiri baratzeak, kontsumo sareak, banka etikoa, tokiko txanponak, elkarrenganako laguntza sareak, talde ekologistak, feministak, langabeak, garapenerako kooperaziokoak... Ziur egon zure herrian zuk uste baino pertsona aktibo gehiago dagoela.

ZATOZ ORAIN!

